

## PRENTSA OHARRA


## Urte historikoa Guggenheim Bilbao Museorako

Arrakastez betetako urtea izan zen 2016 Guggenheim Bilbao Museorako: bisitari kopuru handiaz gain, hainbat sari jaso zituen; Museoaren bide onaren eta proiektzioaren adierazle dira horiek. Bisitari kopuruaren marka gainditu zuen beste urte batez: 1998an, Museoaren ibilbideko lehen urtean, baino ez ziren lagun gehiago izan. Martxoan *Condé Nast Traveller* aldizkariak nazioarteko 15 arte-erakundeen zerrenda egin eta “Munduko museorik politena” izendatu zuen Museoa, zerrendako lehena; Solomon R. Guggenheim Foundation-ekin lehen hitzarmena sinatu zenetik 25 urte eta Museoa ireki zenetik ia 20 urte igaro direla, Frank Gehryk diseinatuko eraikina erakargarria da oraindik ere. Halaber, irailean, estatuko museorik gardenena zela ziurtatu zuen Fundación Compromiso y Transparencia-k, sailkapen bat egiteko, 24 adierazleren arabera, museoek zer-nolako informazioa argitaratzen duten aztertzen duenak.


**1.169.404** pertsona etorri ziren Museora amaitu berri dugun urtean; zortzigarren aldiz gainditu zen, beraz, milioi bat bisitarien kopurua. 2015ean baino %6 lagun gehiago izan ziren (66.193 gehiago).

**Bisitarien jatorri geografikoari** dagokionez, atzerritarren kopurua handia izan zen (%66 guztira) eta jatorrien araberako ehunekoak beste urte batzuen antzekoak izan ziren; gehienak Frantziatik (%18), Erresuma Batutik (%7), Alemaniatik (%6), AEBtik (%6) eta Italiatik (%4) etorritakoak. EAeko bisitarien kopurua %11koa izan zen, eta estatuko bisitarien ehunekoa %23koa.

## Bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera:



## Atzerriko bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera:



2016an pertsona gehien erakarri zituen aldeetako bat Museoaren **arte-programazioa** izan zen. Bisitari gehien izandako aldi baterako erakusketak udaberri eta udakoak izan ziren: *Andy Warhol: Itzalak* 820.619 pertsonak ikusi zuten martxo eta urri hasiera bitartean eta *Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: Gelak* 679.532 lagun erakarri zituen martxo eta irail hasiera bitartean. Hirugarren lekuan dugu *Francis Bacon: Picassotik Velázquezera*: 282.283 bisitari izan zituen urritik abendura bitartean, erakusketa ixteko 7 egun falta direla (urtarrilaren 8an itxiko da).

Atal digitalari dagokionez, zenbakiak ere gora egin dute: [guggenheim-bilbao.eus](http://guggenheim-bilbao.eus) webgunean 2.294.120 bisitaldi izan ziren 2016an (2015ean baino %28 gehiago), eta 8.605.734 orrialde begiratu ziren (2015ean baino %20 gehiago). Museoaren sare sozialen komunitatea eta eragina handitzen segitu zen; 2016an 247.380 jarraitzaile izan ziren Facebook-en, 303.413 Twitter-en eta 121.000 Instagram-en.

**Hezkuntza-egitarau**ei dagokienez, parte hartzaileen kopuruak gora egin zuen 2016an Museoak eskaintzen dituen askotariko jardura-motatan: Museoan bertan nahiz online egiteko ekimenak (317.492 pertsona), entzuteko gidak (ia 600.000 erabiltzaile) nahiz 1.000.000 bisitari baino gehiagok ikusi duten arte-programazioaren osagarri diren gune didaktikoak. Iazko berritasunen artean aipatzekoak dira iTunes U plataforman eskuragarri jarritako Guggenheim Bilbao Bildumaren inguruko 20 ikastaro euskaraz eta 20 gaztelaniaz; unitate didaktiko interaktibo horiek *Apple Distinguished Educators* ekimeneko Apple inguruko hezitzaileekin batera sortutakoak dira. Era berean, nabarmentzekoa da gaitz psikiatrikoak dituzten haur zein nerabeei arreta ematen dien Ortuellako eguneko zentro bateko tailerrek izandako arrakasta eta horren harira buru-osasunerako guztizko terapia eskaintzen duen Asociación Hogar Izarra komunitatean ere antzeko ekimena abian ipini izana. Azkenik, Museoaren XX. Urteurrena dela eta, TopArte egitaraua martxan jarri zen (2017an segituko du) eta jadanik inguruko dozena bat erakundek eta kultur eragilek esku hartu dute.

Bestalde, **enpresen parte hartzea** Guggenheim Bilbao Museoan 120 **Kide Korporatiboren** bidez gauzatu zen 2016an (2015ean baino 7 gehiago). Erakundearen finantzaketaren oinarrietako bat dira.

**Museoaren Lagunen** programan urte amaieran 16.350 Lagun ziren; beste urte batzuetako antzeko kopurua da eta aditzera ematen du hurbilekoek Museoa babesten dutela. **Erdu egitasmoari** dagokionez — langabezian daudenei doako sarbidea eskaintzen die—, 2.346 onuradun izan ziren 2016an.

Azkenik, **Guggenheim Bilbao Museoaren jardunak 2016.** urtean **inguruan izandako eragin ekonomikoaren** azterketak honako emaitzak ekarri ditu, iazkoak baino nabarmen hobeak:

- 485,3 milioi euroko **guztizko eskaria** sortu zuen Museoaren jardunak Euskadin.
- 424,6 milioi eurotan aberastu zen **BPGd**.
- 65,8 milioi euroko **sarrera gehigarriak** izan zituzten **Euskal Ogasun Publikoek** jarduera ekonomiko horren eraginez.
- 9.086 **lanpostu** gordetzen lagundu zuen Museoaren jardunak.

Beste urte batez, 2016an ere buru izan zen Guggenheim Bilbao Museoa **autofinantzazioaren arloan** Europako kultur erakundeen artean: %68 ingurukoa izan zen.

Orain gutxi Museoak Bikain ziurtagiria lortu zuen, euskara erabili eta kudeatzen duela bermatzen duena. Txostenean Museoak arte garaikide gaietan euskarazko corpus zabala sortzeko egindako ahalegina azpimarratu zuten; horrek ere Museoaren bide ona berresten du.

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 2an